



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko abuztuaren 21a

92. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-25/CCOI-00008. “Barañain, Lizarra eta Zizur Nagusiko udalen erakunde autonomoetako langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak, 2023” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-25/CCOI-00008. “Barañain, Lizarra eta Zizur Nagusiko udalen erakunde autonomoetako langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak, 2023” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Barañain, Lizarra eta Zizur Nagusiko udalen erakunde autonomoetako langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak, 2023” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c)

artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**AURKIBIDEA****ORRIALDEA**

I. SARRERA .....	4
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA .....	4
III. SALBUESPENDUN IRITZIA.....	5
IV. SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA .....	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK .....	5
VI. BARAÑAINGO, LIZARRAKO ETA ZIZUR NAGUSIKO UDALEN ERAKUNDE AUTONOMOEN ERANTZUKIZUNA .....	6
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK .....	7
1. GEHIGARRIA. BARAÑAINGO, LIZARRAKO ETA ZIZUR NAGUSIKO UDALEN ERAKUNDE AUTONOMOAK .....	8
1.1 Barañaingo Udalaren EA-en informazio orokorra.....	8
1.2 Lizarrako Udalaren erakunde autonomoaren informazio orokorra .....	8
1.3 Zizur Nagusiko Udalaren erakunde autonomoaren informazio orokorra .....	9
1.4 Arau-esparrua .....	9
2. GEHIGARRIA. LEGEDI-BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA GEHIGARRI BATZUK .....	10
2.1 Langileria.....	10
2.2 Kontratazio publikoa.....	12
2.3. Transferentzia arruntetako gastuak.....	16
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK .....	18
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMATEN DIEN ERANTZUNA .....	24

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, eta 2024ko bere jarduketa-programari jarraituz, fiskalizazioa egin du jarraian aipatzen diren udalen erakunde autonomoetako (aurrerantzean, EA) langileriaren, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen alorretako zenbait zuzenbide-zertzeladari buruz, 2023ko ekitaldia aztergai hartuta:

- Barañaingo Udala: “Lagunak” udal kirol-zerbitzua (aurrerantzean, Lagunak) eta “Luis Morondo” musika-eskola (aurrerantzean, Luis Morondo).
- Lizarrako Udala: Julián Romano Kontserbatorioa Udal Patronatua (aurrerantzean, Julián Romano).
- Zizur Nagusiko Udala: Zizur Nagusiko musika-eskola.

Landa-lana 2024ko abenduan eta 2025eko urtarrilean eta otsailean egin zuen bi auditoretza-teknikariz eta auditore batez osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Lan horren emaitzak jakinarazi zitzaizkien Barañaingo, Lizarrako eta Zizur Nagusiko alkateei, alegazioak aurkez zitzaizten, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Epea amaitu da, eta alegazioak aurkeztu dituzte Barañaingo eta Zizur Nagusiko alkateek. Alegazioak, behin aztertuta, txostenean jaso dira Ganbera honen erantzunarekin batera, eta horrenbestez, txostena behin betiko gisa ematen da.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu EAetako eta udaletako langileei.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emaniko datuek eta ehunekoek balio zehatz bakoitzaren biribiltzea adierazten dute beti, eta ez datu biribilduen batura.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua da iritzia ematea ea Barañaingo, Lizarrako eta Zizur Nagusiko udaletako EAek 2023ko ekitaldian zehar eginiko jarduerak bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa den arau-esparruarekin, honako gai hauei dagokienez:

- Langileria: alderdi orokorrak, nominetako ordainsarien analisi masiboa eta egonkortze-prozesuaren berrikuspena.
- Kontratazio administratiboa: munta txikiko kontratueterako araubide berezizko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak.
- Zuzeneko emakidaren araubidezko dirulaguntzak.

Fiskalizazioaren norainokoak barne hartzen ditu txosten honen 2. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketak.

### III. SALBUESPENDUN IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion esku-menak erabiliz, legedi-betetzeari buruzko fiskalizazio bat egin du Barañaingo, Lizarrako eta Zizur Nagusiko udaletako EAen 2023ko ekitaldiko langileriari, kontratazio publikoari eta dirulaguntzei buruz.

Gure iritziz, eta gure lanaren norainokoa aintzat hartuta, gure txostenaren “Salbuespendun iritzien oinarria” atalean azaldutako zertzeladen eraginengatik izan ezik, langileriaren, kontratazioaren eta dirulaguntzen arloan Barañaingo, Lizarrako eta Zizur Nagusiko udaletako EAen 2023ko ekitaldiari dagozkion jarduera aztertuak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

### IV. SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

Hornidura eta zerbitzuen kontratazio publikoari dagokionez, ikusi dugu akatsak daudela, guztira 316.739 euroko gastuan, erakunde autonomoka honela xehakatuta:

- Munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez izapidetu dira 74.204 euroko gastudun prestazioak, zortzi hornitzaile ordainduak, txosten honen 2.2 gehigarrian zehaztutako zerbitzu eta hornidurak direla-eta. Horiek, baina, beren balio zenbatetsiari zegokion prozeduraren bidez lizitatuak izan beharko ziratekeen. Taula honek erakunde autonomo bakoitzaren datu xeheak biltzen ditu:

	Gastua (2023)	Ondasun eta zerbitzuetan eginiko gutzizko gastu arruntaren gaineko gastuaren %	Prestazio kop.
Lagunak	48.232	4	5
Julián Romano	19.118	36	2
Zizur Nagusiko musika-eskola	6.854	48	1
<b>Guztira</b>	<b>74.204</b>		<b>8</b>

- Beste alde batetik, Lagunak-ek<sup>1</sup> 242.535 euro ordaindu zituen –ondasun eta zerbitzuetako bere gastu arrunt osoaren % 19– gure txostenaren 2.2 gehigarrian zehaztutako hiru prestaziotatik, haien kontratua aurrez iraungita egonik.

Fiskalizazioa egin dugu kanpo-kontrolako erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz eta, zehazkiago, legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 400 arauari jarraituz, bai eta kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoei (GPF-OCEX) jarraituz ere. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean, hain zuzen ere.

Legedi-betetzeari buruzko gure fiskalizazioari aplikatzekoak zaizkion etika-eskakizunarekin eta independentzia defendatzearen eskakizunarekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure salbuespendun iritzia adierazteko.

### V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko legedi-betetzeaz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu legedi-betetzeari buruz egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

<sup>1</sup>Erakunde autonomoa identifikatzen da aurkeztutako alegazioaren ostean.

Txosten honetako "Salbuespendun iritziaren oinarria" atalean azaldutako alderdiak alde batera utzita, ondorioztatu dugu ez dugula gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inolako gorabeheraren berri eman behar.

## **VI. BARAÑAINGO, LIZARRAKO ETA ZIZUR NAGUSIKO UDALEN ERAKUNDE AUTONOMOEN ERANTZUKIZUNA**

Barañaingo, Lizarrako eta Zizur Nagusiko udalen EAetako gobernu- eta administrazio-organoei bermatu behar dute fiskalizatutako gaietako jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Era berean, haien erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatzeko ezen eginiko jarduera lege-urraketarik gabekoa dela.

## **VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA**

Gure helburuak honako hauek dira: arrazoizko segurtasun bat lortzea 2023ko ekitaldian EAek gai fiskalizatueta eginiko jardueretan ez-betetze esanguratsurik ez egoteaz, eta legedi-betetzeari buruzko fiskalizazio-txosten bat egitea, gure iritzia jasoko duena.

Arrazoizko ziurtasuna ziurtasun-maila handia da, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraituz eginiko fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik ez-betetze esanguratsu bat, halakorik egonez gero. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izaten ahal dira, eta materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudiari jarraituz eginiko fiskalizazio baten atal gisa, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarreari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko ez-betetze esanguratsuak izateko arriskuak identifikatu eta balioesten ditugu, auditoretza-prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta gure iritziari oinarria emateko behar besteko eta behar bezalako auditoretza-ebidentzia lortzen dugu. Ez-betetze esanguratsu bat iruzurraren ondoriozkoa denean, hori ez detektatzearen arriskua handiagoa da errearen ondoriozkoa denean baino; izan ere, iruzurraren osagai izaten ahal dira kolusioa, faltsutzea, berriazko omisioak, apropos eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolari itzuri nahia.

- Barne-kontrolari buruzko ezagutza, fiskalizaziorako esanguratsua, lortzen dugu, xede hartuta inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzea, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia ematea.

- Ebaluatzen dugu ea prozedurak egokiak diren, eta ea kudeaketa-organoei emaniko informazioa arrazoizkoa den.

Entitatearen gobernu-organoei harremanetan jartzen gara honako hauek jorratzeko, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak, eta barne-kontrolari dagokionez fiskalizazioan zehar identifikatzen dugun gabezia esanguratsu oro. Entitatearen gobernu-organoei jakinarazi zaizkion gorabeheren artean, zehazten dugu zein izan diren legedi-betetzearen fiskalizazioan esanguratsuenak eta, horrenbestez, auditoretzako gai giltzarriak.

**VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK**

Langileriari, kontratazioari eta dirulaguntzei buruz eginiko legedi-betetzearen fiskalizazioko lanaren emaitza gisa, Ganbera honek hau gomendatzen du<sup>2</sup>:

- *Kontratu-lizitazioko prozedura egokia izapidetzea, hala badagokio, halako prestazioetarako non balio zenbatetsiak gainditu egiten baititu munta txikiko kontratu etarako ezarritako mugak.*
- *Kontratazio publikoko prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea Lagunak erakunde autonomoan, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.*

Beste gomendio gehigarri batzuk jaso ditugu 2. gehigarrian, zeinetan biltzen baitira fiskalizazioaren beste ohar eta aurkikuntza batzuk.

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

<sup>2</sup>Gomendioen idazketa aldatzen da, aurkeztutako alegazioaren ondoren.

## 1. GEHIGARRIA. BARAÑAINGO, LIZARRAKO ETA ZIZUR NAGUSIKO UDALEN ERAKUNDE AUTONOMOAK

### 1.1 BARAÑAINGO UDALAREN EA-EN INFORMAZIO OROKORRA

Barañain Iruñerriko udalerrri bat da. 1,4 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 19.575 biztanle zituen 2023ko urtarrilaren 1ean.

Udalak bi erakunde autonomo baliatzen ditu bere jarduera gauzatzeko: "Lagunak" udal kirol-zerbitzua eta "Luis Morondo" musika-eskola.

2023an, udalak 479.000 euroko ekarpena egin zien entitate horiei.

Udalak kontu orokorrean sartzten ditu EAen kontuak.

2023ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren horien datu ekonomiko eta langileria-arloko datu nagusiak:

Erakundea	Aitortutako esku- bideak	Aitortutako be- tebeharrak	Langileria 2023/12/31n
Barañaingo Udala	20.405.593	16.983.743	144
"Lagunak" udal kirol-zerbitzua	2.256.656	2.239.159	16
"Luis Morondo" musika-eskola	971.815	1.034.498	20
- Bateratzearen doitzeak	(479.000)	(479.000)	-
<b>Bateratua, guztira</b>	<b>23.155.063</b>	<b>19.778.400</b>	<b>171</b>

### 1.2 LIZARRAKO UDALAREN ERAKUNDE AUTONOMOAREN INFORMAZIO OROKORRA

Lizarra Nafarroako Erdialdearen sartaldean kokatutako udalerrri bat da, izen bereko merindadearen erdian dagoena. 15,39 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 14.195 biztanle zituen 2023ko urtarrilaren 1ean.

Udalak Julián Romano Kontserbatorioa Udal Patronatua erakunde autonomoa (aurrerantzean, EA) baliatzen du musika-jarduera gauzatzeko.

2023an, udalak 151.986 milioiko ekarpena egin zion entitate horri.

Udalak kontu orokorrean sartzten du bere EAaren kontua.

2023ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren horren datu ekonomiko eta langileria-arloko datu nagusiak:

Erakundea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileria 2023/12/31n
Udala	16.270.733	15.663.804	131
Julián Romano kontserbatorioa	329.717	329.773	15
- Bateratzearen doikuntzak	(189.972)	(189.972)	-
<b>Bateratua, guztira</b>	<b>16.410.478</b>	<b>15.803.605</b>	<b>146</b>

### 1.3 ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN ERAKUNDE AUTONOMOAREN INFORMAZIO OROKORRA

Zizur Nagusia Iruñerrian kokatuta dagoen udalerrria da. 5,6 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 15.715 biztanle zituen 2023ko urtarrilaren 1ean.

Udalak Zizur Nagusiko musika-eskola EA baliatzen du musika-jarduera gauzatzeko.

2023an, udalak 345.700 euroko ekarpena egin zion entitate horri.

Udalak kontu orokorrean sartzten du bere EAaren kontua. 2023ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren horren datu ekonomiko eta langileria-arloko datu nagusiak:

Erakundea	Aitortutako eskubi-deak	Aitortutako bete-beharrak	Langileria 2023/12/31n
Zizur Nagusiko Udala	16.260.036	17.427.266	100
Musika-eskola	559.774	565.150	13
- Bateratzearen doitzeak	(345.700)	(345.700)	-
<b>Bateratua, guztira</b>	<b>16.474.110</b>	<b>17.646.716</b>	<b>113</b>

### 1.4 ARAU-ESPARRUA

Honako arau hauek zaizkie aplikatzekoak, funtsean, Barañain, Lizarra eta Zizur Nagusiko udalen EAei:

#### **Estatuko araudia**

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

#### **Foru araudia eta tokikoa**

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, aurrekontuari eta gastu publikoari buruzkoa; 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, aurrekontu egiturari buruzkoa, eta 272/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Instrukzio Orokorra onestekoa.
- Aurrekontu-exekuzioko oinarriak.
- Ordenantzak.

## 2. GEHIGARRIA. LEGEDI-BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA GEHIGARRI BATZUK

Eginiko fiskalizazioaren atal gisa, ohar eta iruzkin batzuk gehituko ditugu jarraian, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gertatzen ahal den informazio gehigarriren bat ere.

Jasoko ditugu, halaber, Ganbera honen ustez EAen kudeaketa ekonomiko eta administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

### 2.1 LANGILERIA

EAen langileria-gastuak 2,4 milioikoak izan ziren. Hona gastu horren xehetasuna, erakundeka:

Erakundea	Barañain		Lizarra	Zizur Nagusia
	Lagunak	Luis Morondo	Julián Romano	Musika-eskola
Langile finkoak	241.649	400.588	110.426	375.865
Aldi baterako langileak	281.115	283.974	55.342	50.992
Errendimenduagatiko beste pizgarri batzuk	11.656	-	-	-
Gizarte-kuotak	175.495	210.231	54.684	122.791
Langileen gastu sozialak	14.339	12.387	5.554	
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>724.254</b>	<b>907.179</b>	<b>226.006</b>	<b>549.648</b>
Guztizko ABGen ehunekoak	32	88	69	97

### Plantilla organikoa

2023ko abenduaren 31ko plantilla organikoa eta langile-zerrenda orokortasunez onetsi eta argitaratu ziren, Udalarenekin batera.

Honako hauek dira lanpostuak, 2023 plantilla organikoaren arabera:

Sailekapea	Barañain		Lizarra	Zizur Nagusia
	Lagunak	Luis Morondo	Julián Romano	Musika-eskola
Langile lan-kontratudunak	13	19	15	13
Behin-behineko langileak	1	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>14</b>	<b>19</b>	<b>15</b>	<b>13</b>

Musika-eskoletako langile gehienek lanaldi partziala dute.

Honako hau zen lanpostuen egoera 2023ko abenduaren 31n:

Langileak	Barañain		Lizarra	Zizur Nagusia
	Lagunak	Luis Morondo	Julián Romano	Musika-eskola
Plantillako lanpostuak	14	19	15	13
Beteta	8	11	8	11
Hutsik	6	8	7	2
<b>Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)</b>	<b>43</b>	<b>42</b>	<b>47</b>	<b>15</b>
Beteta dauden lanpostu hutsak	6	6	6	2
<b>Beteta dauden lanpostu hutsak (%)</b>	<b>100</b>	<b>75</b>	<b>86</b>	<b>100</b>
Bete gabeko lanpostu hutsak	-	2	1	-
<b>Bete gabeko lanpostu hutsak (%)</b>	<b>-</b>	<b>25</b>	<b>14</b>	<b>-</b>

Eginiko azterketatik, honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Luis Morondo EAri dagokionez, dauden bi administrari-ofizial postuetatik bakarra dago aurreikusita erakundearen plantilla organikoan.
- Julián Romano EAko eskolazain-postua Udalaren plantilla organikoan dago jasota, han ere egiten dituelako lanak, EAn egiten dituen lanez gain. Haren ordainsariei dagokien gastuaren zenbatekoa, 37.986 eurokoa, EAtik Udalera eginiko transferentzia-gastu gisa zenbatzen da osoki, EAren langile-gastu gisa zenbatu beharrean.
- Julián Romano EAko zuzendari-osagarria eta ikasketaburu-osagarria hitzarmen kolektiboaren arabera ordaindu badira ere, ez daude jasota plantilla organikoan.

### Egonkortzearen azterketa

Enplegu publikoaren egonkortze-prozesua aztertu dugu, aintzat harturik zer betekizun eta epe ezartzen diren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze-prozesuak egiteko neurriei buruzkoan. Honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- EA guztiak, bai eta haien Udalak ere, aipatutako araudiari atxiki zizaizkion partzialki.
- Lan publikoaren eskaintza bat (aurrerantzean, LPE) onetsi zuten, 20 egonkortze-lanpostu-koa, merezimendu-lehiaketaren hautespen-sistemaren bidezkoa.
- Egiatzatu dugu LPEan sartutako lanpostuek bete egiten dituztela araudian ezarritako baldintzak.
- Lanpostu horiek betetzeko deialdiak legearen arabera argitaratu ziren, zeinak 2022ko abenduaren 31 zehazten baitzuen epemuga gisa.
- Txosten hau egiteko unean, amaituta dago egonkortze-prozesua, kasuko pertsonen izendapenarekin.
- Behin-behinekotasun indizea kalkulatzeko, behin-behinean betetako lanpostuen eta modu iraunkorrean eta behin-behinekoan betetako lanpostuen guttizkoaren arteko zatiketa egin da. Bada, egonkortze-prozesua amaitu zenerako, indize horri dagokionez, bete egin zen araudian ezarritako ehuneko zortziko helburua, Luis Morondo EAn izan ezik. Hor, behin-behinean beteta jarraitzen dute plantilla organikoan jasotako 19 lanpostuetatik bik.
- Honako hau zen lanpostuen egoera 2023ko abenduaren 31n:

Langileria	Barañain		Lizarra	Zizur Nagusia
	Lagunak	Luis Morondo	Julián Romano	Musika-eskola
Plantillako lanpostuak	14	19	15	13
Bete diren lanpostu hutsak	6	6	6	2
Egonkortzearen aurreko behin-behinekotasun indizea	43	35	43	15
Egonkortzean eskainitako lanpostuak	5	4	7	2
Egonkortzearen osteko behin-behinekotasun indizea	7	12	0	0

**Langile-gastuaren egiaztapenak**

2023ko urrian sortzapena izandako nominaren ordainsari-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu. Honako hauek izan dira aztertutako ordainsariak eta haien zenbatekoak:

Langileria	Barañain		Lizarra	Zizur Nagusia
	Lagunak	Luis Morondo	Julián Romano	Musika-eskola
Mailako hasierako soldata	25.893	30.715	9.543	20.029
Antzinasuna/maila	3.109	5.930	2.326	6.044
Osagarriak	2.323	9.913	1.044	4.061
Familia-laguntza	271	-	-	-
<b>Aztertutakoa, guztira</b>	<b>31.596</b>	<b>46.558</b>	<b>12.913</b>	<b>30.135</b>
Aztertutako %, urriko nominaren guztizkoarekiko	85	98	93	94

Aurreko azterketan egiaztatu dugu nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztiak bat datoze plantilla organikoan edo aplikatu beharreko hitzarmenean jasotakoekin, eta pertsona bakoitzari zuzen ordaindu zaizkiola, betetzen duen lanpostuaren arabera.

Eginiko azterlana kontuan hartuta, hauxe gomendatzen dugu:

- *Dauden lanpostu guztiak jasotzea Luis Morondo EAren plantilla organikoan.*
- *Kobratzen diren osagarri guztiak adieraztea Julián Romano EAren plantillan.*
- *Julián Romano EAren kontabilitatean kasuko zenbatekoaren egozpena egitea, betetako zereginen pisu erlatiboaren araberakoa, langileria-gastu gisako izaerari erreparatuz.*
- *Langileen behin-behinekotasuna murrizteko prozesuekin jarraitzea Luis Morondo EAn, araudiak ezarritako ehuneko zortziko helburua lortzeko.*

**2.2 KONTRATAZIO PUBLIKOA**

EAen ondasun eta zerbitzuengatikoko gastu arruntak 1,45 milioi eurokoak izan ziren 2023ko ekitaldian, honela xehatuta erakundeka:

Kontzeptua	Barañain		Lizarra	Zizur Nagusia
	Lagunak	Luis Morondo	Julián Romano	Musika-eskola
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	144.469	9.128	8.272	75
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	1.116.190	107.714	44.793	14.217
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	2.593	70	-	-
<b>Gastua, guztira</b>	<b>1.263.252</b>	<b>116.912</b>	<b>53.065</b>	<b>14.292</b>
Ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastu arrunten %, gastuen guztizkoaren gainekoa	56	11	16	3

Honako hauek izan dira inbertsio-gastuak 2023an:

Kontzeptua	Barañain		Lizarra	Zizur Nagusia
	Lagunak	Luis Morondo	Julián Romano	Musika-eskola
Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	45.552	-	6.707	-
Altzariak	12.133	-	-	1.210
Informazio-prozesuetarako ekipamenduak	3.212	-	-	-
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako beste inbertsio berri batzuk	-	10.407	-	-
<b>Guztira</b>	<b>60.897</b>	<b>10.407</b>	<b>6.707</b>	<b>1.210</b>
Inbertsio-gastuen %, gastuen guztizkoaren gainekoa	3	1	2	0

Gure lana izan da munta txikiko araubidearen bidez eginiko kontratazioa aztertzea, bai eta kontratua iraungita zuten prestazioak ere aztertzea, bi gastu-kapituluetan kontabilizatuak. Jarraian, EA bakoitzean eginiko azterketa deskribatuko dugu.

### 2.2.1 Lagunak udal-zerbitzua (Barañaingo Udala)

Taula honetan, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak daude jasota, zenbatekoen arabera:

Gastu arruntak, ondasunetan eta zerbitzuetan	Hornitzaile-kopurua	Gastua, gutira
Handiagoa 15.000 euro gehi BEZa baino	10	957.260
3.750 euro eta 15.000 euro artean (gehi BEZa)	18	157.816
Txikiagoa 3.750 euro gehi BEZa baino	158	148.177
<b>Guztira</b>	<b>186</b>	<b>1.263.252</b>

Inbertsio-gastua, 21 kontratatzailei dagokiena, 61.000 eurokoa da. Kasu guztietan, zenbatekoa txikiagoa izan da 15.000 euro gehi BEZa baino.

Ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastu arrunt guztiak aztertu ditugu, bai eta esleitutako inbertsioenak ere.

Honako ondorio hauek atera ditugu gure azterketatik:

#### Munta txikiko kontratazioa

- 2. kapitulua. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Egiaztatu dugu munta txikiko kontratuetarako araubide bereziaren bidez izapidetutako prestazioak badaudela, guztira 48.232 euroko gastua eragin zutenak 2023an, zeinen balio zenbatetsiak, ekitaldi batean edo gehiagotan, gainditu egiten baititu Kontratuei buruzko Foru Legean araubide horretarako ezarritako mugak:

Prestazioaren azalpena	Faktura-kop.	ABG, 2023
Harpidedunak kudeatzeko programa, eta informatika eta hardwarearen mantentze-lanak	41	12.965
Klimatizagailuen mantentze-lanak	11	10.051
Galdara-gelaren mantentze-lanak	11	10.907
Garbiketa-materialaren hornidura	15	8.924
Igerileku-entseguak: uraren eta airearen kalitatearen kontrola	12	5.385
<b>Guztira</b>		<b>48.232</b>

Aurreko datuei buruz, esan behar da kontratista bakar batek egin zuela prestazio bakoitza.

- 6. kapitulua. Inbertsio-gastuak

Ikusi dugu aztertutako gastua egokiro izapidetu zela, araudian ezarritakoaren arabera.

- Kontratazioak argitaratzea

2023an, Lagunak EAK ez zuen argitaratu<sup>3</sup> adjudikatutako munta txikiko kontratuei buruzko hiruhileroko informazioa, adjudikazioduna eta zenbatekoa adierazita.

<sup>3</sup>2024ko ekitaldiaren amaiera aldera hasi ziren hori argitaratzen

**Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak**

Lagunak EAK 242.535 euro ordaindu zituen kontratua epemugaratua zuten hiru prestazioengatik, honako xehetasun hauekin:

Kontratuaren xedea	2023an ordaindutako gastua	Kontratuaren amaieratik 2023-12-31ra arte metatutako gastua	Kontratu-amaieraren data (luzapenak barne)
Kirol-monitoreen zerbitzurako eta gimnasiaorako laguntza	196.334	261.962	2022/08/01
Produktu kimikoak	32.624	107.794	2020/02/10
Lagunak udal-zerbitzuaren ondasunei eginiko kalteen asegurua	13.577	60.400	2019/03/13
<b>Guztira</b>	<b>242.535</b>	<b>430.156</b>	

Txosten hau egiteko unean, EAK jakinarazi digu kirol-monitoreen zerbitzu eta gimnasiaorako laguntzaren lizitazioa lantzen ari direla.

**2.2.2 Luis Morondo musika-eskola (Barañaingo Udala)**

Taula honetan, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak daude jasota, zenbatekoen arabera:

Gastu arruntak, ondasunetan eta zerbitzuetan	Hornitzaile-kopurua	Gastua, guztira
Handiagoa 15.000 euro gehi BEZa baino	2	63.228
3.750 euro eta 15.000 euro artean (gehi BEZa)	3	18.476
Txikiagoa 3.750 euro gehi BEZa baino	60	35.207
<b>Guztira</b>	<b>65</b>	<b>116.912</b>

Inbertsio-gastua, hiru kontratatzailei ordaindua, 10.407 eurokoa da. Ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastu arrunt guztiak aztertu ditugu, bai eta esleitutako inbertsioenak ere.

Honako **ondorio** hauek atera ditugu gure azterketatik:

**Munta txikiko kontratazioa**

- 2. kapitulua. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Aztertutako ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunta behar bezala izapidetu zen munta txikiko kontratazioko araubide bereziaren bidez.

- 6. kapitulua. Inbertsio-gastuak

Aztertutako inbertsio-gastua behar bezala izapidetu zen munta txikiko kontratazioko araubide bereziaren bidez.

- Kontratazioak argitaratzea

Luis Morondo EAK ez zuen argitaratu adjudikatutako munta txikiko kontratuei buruzko hiruhileroko informazioa, adjudikazioduna eta zenbatekoa adierazita. Halaber, beti ez ditu araudian ezarritako epeetan argitaratu adjudikazioak Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

### 2.2.3 Julián Romano kontserbatorioa udal-patronatua (Lizarrako Udala)

Taula honetan, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak daude jasota, zenbatekoen arabera tarteka:

Gastu arruntak, ondasunetan eta zerbitzuetan	Hornitzaile-kopurua	Gastua, guztira
3.750 euro eta 15.000 euro artean (gehi BEZa)	3	33.702
Txikiagoa 3.750 euro gehi BEZa baino	23	19.363
<b>Guztira</b>	<b>26</b>	<b>53.065</b>

Inbertsio-gastua, kontratatzaile bati dagokiona, 6.707 eurokoa da.

Ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastu arrunt guztiak aztertu ditugu, bai eta esleitutako inbertsioenak ere.

Honako **ondorio** hauek atera ditugu gure azterketatik:

#### Munta txikiko kontratazioa

- 2. kapitulua. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Egiaztatu dugu munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez izapidetutako prestazioak badaudela, guztira 19.118 euroko gastua egin zutenak 2023an, zeinen balio zenbatetsiak, ekitaldi batean edo gehiagotan, gainditu egiten baititu Kontratuei buruzko Foru Legean araubide horretarako ezarritako mugak:

Prestazioaren deskribapena	Faktura-kop.	ABG, 2023
Eraikinaren argi-hornidura	12	10.456
Eraikinaren gas-hornidura	12	8.663
<b>Guztira</b>		<b>19.118</b>

Aurreko datuei buruz, esan behar da kontratista bakar batek egin zuela prestazio bakoitza.

Igogailuaren mantentze-lanei eta telefonoari dagozkien gastuak ikusi ditugu, 2.764 euroko zenbatekoa dutenak; Udalak kudeatzen ditu, eta Udalarentzako transferentzia gisa kontabilizatzen dira Julián Romano EAn.

- 6. kapitulua. Inbertsio-gastuak

Ikusi dugu aztertutako gastua egokiro izapidetu zela, araudian ezarritakoaren arabera.

- Kontratazioak argitaratzea

Julián Romano EAK ez zuen argitaratu adjudikatutako munta txikiko kontratuei buruzko hiruhileroko informazioa, adjudikazioduna eta zenbatekoa adierazita. Halaber, ez ditu adjudikazio guztiak Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu araudian ezarritako epeetan.

### 2.2.4 Zizur Nagusiko musika-eskola

Taula honetan, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak daude jasota, zenbatekoaren arabera tarteka:

Gastu arruntak, ondasunetan eta zerbitzuetan	Hornitzaile-kopurua	Gastua, guztira
3.750 euro eta 15.000 euro artean (gehi BEZa)	1	6.854
Txikiagoa 3.750 euro gehi BEZa baino	17	7.438
<b>Guztira</b>	<b>18</b>	<b>14.292</b>

Inbertsio-gastua, kontratatzaile bakarrari ordaindua, 1.210 eurokoa da.

Ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastu arrunt guztiak aztertu ditugu, bai eta esleituriko inbertsioenak ere.

Honako **ondorio** hauek atera ditugu gure azterketatik:

### Munta txikiko kontratazioa

- 2. kapitulua. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

38.995 euroko gastuak ikusi ditugu, Udalak kudeatzen eta kontabilizatzen dituenak, eta musika-eskolaren kontabilitatean jaso gabe daudenak.

- Kontratazioak argitaratzea

2023an, Zizur Nagusiko musika-eskolak ez zuen argitaratu<sup>4</sup> adjudikaturiko munta txikiko kontratuei buruzko hiruhileroko informazioa, adjudikazioduna eta zenbatekoa adierazita. Halaber, ez ditu adjudikazio guztiak Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu araudian ezarritako epeetan.

Gure konklusioak aintzat hartuta, VIII. epigrafean jada adierazitako gomendioez gain, <sup>5</sup>hauxe gomendatzen dugu:

- *Luis Morondo eta Julián Romano EAetan munta txikiko araubide bereziaren bidez izapidetutako kontratuen hiruhileroko zerrenda argitaratzea, araudian ezarritakoaren arabera.*
- *Luis Morondo, Julián Romano eta Zizur Nagusiko musika-eskola EAetan, lizitazioak eta adjudikazioak argitaratzea kontratazio-atarian, araudian ezarritako epeetan.*
- *Julián Romano eta Zizur Nagusiko musika-eskola EAetan, eginiko gastuak erakundearen aurrekontura egozte, duten izaera ekonomikoaren arabera.*

### 2.3. TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO GASTUAK

Lagunak izan zen dirulaguntzak eman zituen erakunde bakarra, emakida zuzeneko araubidean eman ere, bere estatutuetan esleituriko ahala baliatuz, bera arautzen duen ordenantzari jarraituz, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 3.2 artikulua 1. paragrafoa aplikagarri zaion heinean.

Kirol-jarduerekin lotutako irabazi-asmorik gabeko elkarteei eman zitzaizkien osoki, eta 190.757 eurokoak izan ziren 2023an; gastuen guztizko zenbatekoaren ehuneko bederatzita egiten du horrek. Dirulaguntza guztiak emakida zuzeneko araubidean eman ziren, eta izaera arruntekoak izan ziren, honako xehetasun hauekin:

Onuraduna	Dirulaguntzaren xedea	ABG, 2023
	Futbol-programa	54.000
Asociación Footlag	3. Federazioko taldearen gastuen aparteko finantzaketarako dirulaguntza	10.000
Adiskideok elkarte	Eskubaloi-programa	31.826
Saski elkarte	Saskibaloi-programa	31.022
Gimnastika erritmikoa KE	Gimnastika erritmikoko programa	11.500
Rebote elkarte	Pilota-programa	15.635
Barañaingo patin-hockey elkarte	Patin-hockeyko programa	11.674
Jaigeri elkarte	Igeriketa-programa	11.600
Lagun patin KE	Abiadura-patinajeko programa	13.500
<b>Guztira</b>		<b>190.757</b>

<sup>4</sup>2025ean hasi ziren hori argitaratzen.

<sup>5</sup>Gomendioen idazketa aldatzen da, aurkeztutako alegazioaren ondoren.

Futbol, eskubaloia eta saskibaloiko programetarako emaniko dirulaguntzak aztertu ditugu; transferentzietan exekutaturiko gastuaren ehuneko 67 egiten dute.

Azterketaren ostean, honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Ez da egin dirulaguntzen plan estrategikorik, haien helburuak, lortu nahi diren eraginak, epeak, aurreikusiriko kostuak eta finantzaketa-iturriak jasotzen dituenik.
- Nahiz eta aurrekontuko gastuen egoera-orrietan adierazita dauden emakida zuzeneko araubidean emaniko dirulaguntzen xedea eta zenbatekoa, dirulaguntzen onuradunak ez daude identifikatuta. Aldiz, aurrekontuaren exekuzio-oinarrietan daude zehaztuta.
- Dirulaguntza guztiak araututa daude gastu hautagarriak eta horiek justifikatzeko modua zehazten dituen hitzarmen baten bidez.
- 2023an<sup>6</sup>, dirulaguntzak ez ziren argitaratu Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean.
- Elkartek entrenatzaile eta koordinatzaileei ordaindutako zenbatekoez denaz bezainbatean, dirulaguntza horren hitzarmen arauemaileak xedatzen du onuradunek zerga-betebeharrak bete behar dituztela haiei aplikatzen zaizkien atxikipenei dagokienez. Alabaina, hitzarmenean ez da jasotzen horien betetzea frogatzeko betebeharrak.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, hona gure gomendioak:

- *Hala badagokio, dirulaguntzen plan estrategiko bat onestea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, kostu aurrekusiak eta finantzaketa-iturriak.*
- *Emakida zuzeneko araubidearen bidez emaniko dirulaguntzen onuradunak identifikatzea aurrekontuko gastuen egoera-orrietan.*
- *Emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.*
- *Dagokion hitzarmen arauemailean xedatzea ezen dirulaguntzen onuradunak diren elkartek behartuta egonen direla honakoa frogatzera: bete egin dutela koordinatzaile/entrenatzaileek jasotako zenbatekoen gainean zerga-atxikipena egiteko betebeharra.*

<sup>6</sup>2025ean hasi ziren argitaratzen.

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK****Barañaingo Udala**

MARIA LECUMBERRI BONILLA andreak, Barañaingo Udaleko alkateak, jakinarazpenetarako helbidea Barañaingo (Nafarroa) Udaletxe plaza z.g. helbidean duenak, eta NAN zenbakia 72.704.683G duenak, BARAÑAINGO UDALAREN izenean eta haren ordezkari gisa,

Ikusita 2025eko apirilaren 11ko "Barañain, Lizarra eta Zizur Nagusiko udalen erakunde autonomoetako langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak, 2023" txostenaren zirriborroa, aldatzen ahal dena,

Ikusirik Udalak beharrezkotzat jotzen duela horri buruzko zenbait azalpen ematea Ganberak eginiko gomendio jakin batzuez denaz bezainbatean,

Idazki honen bidez, behin-behineko txosten horri eginiko alegazioak aurkezten ditu, Ganberak jasotzat eman ditzan:

**ALEGAZIO-IDAIZKIA:****A. LAGUNAK EA.****A) Kontratazioa:****1. Kontratazioak argitaratzea:**

2024aren amaierara arte, Lagunak EAK ez zuen argitaratu adjudikatutako munta txikiko kontratuei buruzko hiruhileroko informazioa, adjudikazioduna eta zenbatekoa adierazita. Halaber, ez ditu adjudikazio guztiak Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu araudian ezarritako epeetan.

- Aipatu behar da Lagunak munta txikiko kontratuen hiruhilekoko informazioa argitaratzen hasi zela 2024. urtearen amaiera aldera.

Adjudikazioak, berriz, ez ditu argitaratzen araudian ezarritako epeetan.

Honako hau dio Kontratu publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 102.1 artikulua: "Kontratu-adjudikazioak, salbu eta zenbateko txikiko kontratuak adjudikatzeko araubide bereziaren bidez egiten direnak, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko dira, bost eguneko epean, kontratu-adjudikazioaren eraginkortasunaren etenaldia amaitzen denetik hasita bost eguneko epean. Lizitazio-iragarkirik argitaratu ez deneko kontratu-adjudikaziorako iragarkietan horretarako justifikazioa ematen duen azalpen labur bat erantsiko da, egitatezko inguruabarrak eta zuzenbide-oinarriak aipatzen dituena".

- Esan behar da Lagunak argitaratu egin dituela, bai, kontratu-adjudikazioak Nafarroako Kontratazioaren Atarian. Eta, epeei dagokienez, azken espedientei buruzko

beheko taulan ikus daitekeen bezala, nahiz eta arauan ezarritakoa ez duen zorrozki betetzen, epe horietatik gertu egin dira argitalpenak:

Nº-EXPOTE#	CONTRATOR#	ADJUDICATOR#	FECHA-NOTIF.-ADJUDICACION#	FIN-PLZO-SUSPENSION#	FECHA-PUBLICACION#	ENLACE-PUBLICACION-PORTAL-DE-CONTRATOS-NAVARRA#
CONTRATOS-01#	Gestión y explotación barm	SILVIYA-LILKOVA-YUZEKCHIEVA#	22/09/2020#	02/10/2020#	15/10/2020#	<a href="https://hacienda.navarra.es/sicportal/ctaDatosAdjudicacion.aspx?Cod=8081&amp;Ticket=20101512210113867240#">https://hacienda.navarra.es/sicportal/ctaDatosAdjudicacion.aspx?Cod=8081&amp;Ticket=20101512210113867240#</a>
CONTRATOS-02#	Gestión y explotación servicio de fisioterapia#	JOSETXO-RETEGUI-CASAJUS#	01/02/2022#	unico-aspirante, no-plazo-suspensión#	16/02/2023#	<a href="https://hacienda.navarra.es/sicportal/ctaDatosAdjudicacion.aspx?Cod=8081&amp;Ticket=22021611281115922176#">https://hacienda.navarra.es/sicportal/ctaDatosAdjudicacion.aspx?Cod=8081&amp;Ticket=22021611281115922176#</a>
CONTRATOS-03#	Socorrismo#	GURE-URTATS-ADUR.S.L.#	15/07/2022#	25/07/2022#	15/07/2022#	<a href="https://hacienda.navarra.es/sicportal/ctaDatosAdjudicacion.aspx?Cod=8081&amp;Ticket=230608102442960ADF80#">https://hacienda.navarra.es/sicportal/ctaDatosAdjudicacion.aspx?Cod=8081&amp;Ticket=230608102442960ADF80#</a>
CONTRATOS-04#	Servicio mantenimiento, limpieza y control accesos#	UTE.SERVICIOS-SML#	12/05/2023#	22/05/2023#	08/06/2023#	<a href="https://hacienda.navarra.es/sicportal/ctaDatosAdjudicacion.aspx?Cod=8081&amp;Ticket=230608102442960ADF80#">https://hacienda.navarra.es/sicportal/ctaDatosAdjudicacion.aspx?Cod=8081&amp;Ticket=230608102442960ADF80#</a>

## 2. Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak.

Kirol-monitoreen zerbitzurako eta gimnasiaorako laguntza-prestazioari dagokionez, adierazi behar da ezen, urtarrilaz geroztik, lizitazioa lantzen ari direla. Une honetan, kontratatu beharreko prestazioen kalkulu ekonomikoa egiten ari dira (jarduera-parrilak eskarira egokitzea, zerbitzu-orduak...), eta zer langile subrogatzen ahal diren aztertzen; horretarako, langileen subrogazio-taula eman digu enpresak. Aurreikuspenen arabera, 2025eko azken hiruhilekoan izapidetuko da lizitazioa, landurik daudenean baldintza teknikoien pleguak, klausula administratiboien plegua eta egoki diren aurretiko txostenak. Xedea da esleipendun suertatzen den enpresarekiko kontratu berria noiz hastea eta bete beharreko zerbitzuaren ikuspegitik une egokiena den horretan.

### B) Dirulaguntzak.

1. Ez da egin dirulaguntzen plan estrategikorik, haien helburuak, lortu nahi diren eraginak, epeak, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak jasotzen dituenik.

Kontuen Ganberak Barañaingo Udalari gomendioa egin ostean, toki-erakundea plana lantzen ari da, zeinak barne hartuko baititu toki-erakundea bera eta haren erakunde autonomoak.

2. Aurrekontuko gastuen egoera-orrietan adierazita badaude ere emakida zuzeneko araubidean emaniko dirulaguntzen xedea eta zenbatekoa, dirulaguntza bakoitzaren onuradunak ez dira identifikatzen.

Ohartarazpen hori egin bada ere, argitu behar da onuradunak identifikatuta daudela aurrekontua exekutatzeko oinarrien 30. oinarriko eranskinean, eta hor adierazita daudela onuradunaren izena eta IFK, dirulaguntzaren zenbatekoa eta diruz lagundutako programa. Beste alde batetik, gaur egun aldatu egin da dirulaguntzak emateko modalitatea (emakida zuzeneko araubidean emaniko dirulaguntzak 2025eko ekainetik azarora bitarte bukatuko dira). Erakunde autonomoak, gaur egun, norgehiagoka-modalitatean egin du dirulaguntzen deialdia. Eta, dirulaguntza izendunak berriz onetsiz gero, aurrekontuetako partida izendunetan

onuradunak identifikatuta eginen da, Dirulaguntzen Lege Orokorrak 20.2 artikuluan xedatzen duen eran:

3. Zuzenean eman ahalko direnak honako dirulaguntza hauek dira:

a) Estatuaren, autonomia-erkideen eta toki-erakundeen aurrekontu orokorretan, hitzarmenen baldintzetan eta dirulaguntzak arautzen dituzten arauetan aurreikusita daudenak.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hauek jotzen dira Estatuaren aurrekontu orokorretan izenez aurreikusitako dirulaguntzat: gutxienez haien aurrekontuzukidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrietan adierazita dutenak. Dirulaguntza horien xedea berariaz jasota egonen da dagokion lankidetzahitzarmenean edo emakida-ebazpenean. Edonola ere, xedeak bat etorri beharko du dagokion aurrekontu-kredituaren sailkapen funtzional eta ekonomikoarekin.

4. Honi buruzko ohartarazpena: dagokion hitzarmen arauemailean xedatzea dirulaguntzen onuradun diren elkarteek egiaztatu beharko dutela bete dutela koordinatzaile eta entrenatzaileek jasotako zenbatekoen gainean zerga-atxikipena gauzatzeko betebeharra.

Hitzarmen arauemailean ez dago jasota erakunde onuradunek hori bete dutela frogatu beharko diotela Lagunaki, baizik eta hau dago jasota 3.2 "Laguntzaren onuradun izateko eskakizunak" puntuan:

- Elkarteek indarreko legedia bete beharko dute, eta, bereziki, Nafarroako Kirol Entitateen Oinarrizko Zerga Gida.

Zerga-gida hori herritarrentzat eskuragarri dago Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoren Institutuaren webgunean. Hor ezarrita daude, besteak beste, pertsona bakoitzaren egoeraren arabera zerga-ordainketarako betebeharra izatea ala ez izatea, eta jarduera horretatik jasotako zenbatekoa.

[Zerga-gidarako esteka:](https://www.navarra.es/nr/rdonlyres/3fe9a594-08ea-49c6-8a0a-605a25ef88a6/384443/guiafiscalidadesdeportivasedicionwebv1_5eusk.pdf) [https://www.navarra.es/nr/rdonlyres/3fe9a594-08ea-49c6-8a0a-605a25ef88a6/384443/guiafiscalidadesdeportivasedicionwebv1\\_5eusk.pdf](https://www.navarra.es/nr/rdonlyres/3fe9a594-08ea-49c6-8a0a-605a25ef88a6/384443/guiafiscalidadesdeportivasedicionwebv1_5eusk.pdf)

Hor adierazten da, akatsik ezean, entitate ordaintzaileek, kasu honetan elkarteek berek, egin behar dituztela atxikipenak lan-etekintzat jotako errenten kasuan, dagozkion ereduak aurkezteko betebeharrarekin eta haien zenbatekoaren arabera.

Zenbatekoa txikia bada, diru-sarrera horiek jasotzen dituzten pertsonak berek aitortu behar dute PFEZa, baldin eta diru-sarrera horrekin batera beste diru-sarrera batzuk jasotzen badituzte, hala nola laneko etekinak eta kapital higigarriarenak, dagokion araudian ezarritako muga gainditzen dutenak.

Hau da, Lagunak udal-zerbitzua ez da arduratzen atxikipen horien kontrolaz, ez baita bere egitekoa; horren ordez, entitate onuradunei gogorarazten zaie zerga-gidan xedatutakoa bete behar dutela.

DLOren 22. artikuluan, dirulaguntzak zuzenean emateko hiru egoera posible aurreikusten dira, eta horietako lehenengoa da toki-entitatearen aurrekontuetan izenez aurreikusitako dirulaguntzarena. Kasu honetan, espedientea ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da.

Edukia: Harako ohartarazpenari dagokionez, zeinak baitio dagokion hitzarmen arauemailean xedatu behar dela dirulaguntzen onuradun diren elkarteek frogatu beharko dutela bete

dutela koordinatzaile eta entrenatzaileek jasotako zenbatekoen gainean zerga-atxikipena egiteko betebeharra, esan behar dugu udal honek jardute-gomendio posible gisa onartzen duela, baina betebeharrak hori inola ere ez dagoela legez aurreikusita.

887/2006 Errege Dekretuan, uztailaren 21ekoan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duenean, adierazten da dirulaguntzak esleitzeko prozedura arrunta norgehiagokarena izanen dela, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.1 artikuluan aurreikusitakoa. Eta, orobat, 38/2003 Legearen 22.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan soilik ematen ahalko direla dirulaguntzak zuzenean, hau da:

a) Estatuaren, autonomia-erkideen eta toki-erakundeen aurrekontu orokorretan, hitzarmenen baldintzetan eta dirulaguntzak arautzen dituzten arauetan aurreikusita daudenak.

Honako hauek jotzen dira Estatuaren aurrekontu orokorretan izenez aurreikusitako dirulaguntzat: gutxienez haien aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrietan adierazita dutenak. Dirulaguntza horien xedea berariaz jasota egonen da dagokion lankidetzak-hitzarmenean edo emakida-ebazpenean. Edonola ere, xedeak bat etorri beharko du dagokion aurrekontu-kredituaren sailkapen funtzional eta ekonomikoarekin.

b) Lege mailako arauen batek aginduta edo zenbatekoa zehaztuta administrazioak ematen dituenak. Kasuan kasuko prozedura aplikagarria erabiliko da dirulaguntza horiek emateko, bakoitzaren araudiari jarraituz.

c) Salbuespenez, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitariokoak direla egiaztatzeko arrazoiak dituzten dirulaguntzak, edo deialdi publiko bidez ematen zailak direnak, hori behar bezala justifikatuta egonik betiere.

Hori horrela, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 28. artikulua dio emakida-ebazpenean, eta, hala badagokio, dirulaguntza horiek bideratzeko hitzarmenetan ezarriko direla aplikatzekoak diren baldintzak eta konpromisoak, lege horretan xedatutakoarekin bat.

Aurreikuspen horrek gogora dakar, beraz, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duenak, 65. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duena; hau da, dirulaguntzak emakida zuzeneko araubidearen bidez esleitzeko araubide juridikoa.

Hori horrela, arau horren 65. artikulua honako hau dio prozedura horri buruz:

"1. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Estatuaren, autonomia-erkideen eta toki-erakundeen aurrekontu orokorretan, hitzarmenen baldintzetan eta dirulaguntzak arautzen dituzten arauetan aurreikusita dauden dirulaguntzak dira haien xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrietan adierazita dutenak.

2. Estatuaren Administrazio Orokorrean, toki-erakundeetan eta horiekin lotutako edo horien mendeko erakunde publikoetan, aplikatzekoa izanen zaie dirulaguntza horiei, haiek emateko modua arautzen duen araudi espezifikorik ez badago, Dirulaguntzen Lege Orokorrean

eta Erregelamendu honetan xedatutakoa, batean zein bestean iragarpen- eta lehia-printzipioen aplikazioari eragiten diona izan ezik.

3. Dirulaguntza zer aurrekontu-kreditutara egozten den, kreditu hori kudeatzen duen zentroak hasiko du, ofizioz, dirulaguntza emateko prozedura, edo interesdunak eskatuta hasiko da, eta emakida-ebazpenarekin edo hitzarmenarekin bukatuko da.

Atal honetan aurreikusitako egoeretako edozein izanik ere, emakida-egintza edo hitzarmena emakidaren oinarri arautzailatzat joko dira Dirulaguntzen Lege Orokorrean xedatutakoaren ondorioetarako.

Ebazpenean, edo, hala badagokio, hitzarmenean, honako hauek jaso beharko dira:

a) Dirulaguntzaren xedea eta onuradunak, aurrekontu-esleipenarekin bat.

b) Gastua zer aurrekontu-kreditutara egozten den, eta dirulaguntzaren zenbatekoa; onuradun bat baino gehiago izanez gero, zenbatekoa banakatuta adierazi beharko da.

c) Xede bererako emaniko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna, haiek estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziotatik edo entitate publiko edo pribatutatik jasota ere.

d) Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta moduak, ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera, eta berme-araubidea, hala badagokio onuradunek aurkeztu beharrekoa.

e) Onuradunak dirulaguntzaren xedea bete dela eta jasotako funtsak baliatu direla frogatzeko epea eta modua”.

Hitzarmen izendunen edukiari buruzko araudi aplikagarria ikusita, eta, zehazki, 887/2006 Errege Dekretuaren, uztailaren 21ekoaren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen Erregelamendua onesten duenaren, 65. artikuluan e) letra, non ezartzen baita hitzarmen izendunak ezarri behar dituela onuradunak dirulaguntzaren xedea bete dela eta jasotako funtsak baliatu direla frogatzeko epea eta modua, esan behar da inola ere ez duela xedatzen administrazio publikoek –halako bat da gure toki-entitate hau– derrigorean ezarri behar dutenik hitzarmen arauemailean dirulaguntzen onuradun diren elkarteek frogatu behar dutela bete egin dutela koordinatzaile eta entrenatzaileek jasotako zenbatekoen gainean zerga-atxikipena egiteko betebeharra.

Ulertzen dugu pertsona fisikoen edo juridikoen zerga-betebeharren ordainketa kontrolatzeko beste administrazio batzuekin lankidetzan aritzeak horien betebeharrak betetzea sustatzen duela, baina, edonola ere, ez da udal baten betebeharra hori egitea, horiek betetzen direla kontrolatzeko eskumena duen administrazioarena berarena baizik. Eta are gutxiago da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen Erregelamenduan jasotako legezko betebeharrak, eta arau horiek dira, hain zuzen ere, bere aplikazio-esparru subjektiboan –Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoa– jasotako administrazio publikoak, –horietako bat da toki-erakunde hau–.

Alegazio horiekin bat, eskatzen dugu ken dadila Kontuen Ganberak Lagunak erakunde autonomoari egotzitako ez-betetze hori, ez baitago horretara behartzen duen legezko betebeharririk. Besterik gabe, aurreikustea ezen, berriz ere hitzarmen izendunaren prozedura erabiltzen bada laguntzak esleitzeko, zeina ez baita erabiltzen gaur egun, aurreikus daitezela

beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan aritzeari buruzko ohar horiek, horrelaxe ere aurreikusten duenez Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. artikulua, administrazioen arteko harremanen printzipioei dagokienez.

Edonola ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 142. artikulua e) paragrafoan aurreikusitako teknika, beste administrazio batzuek beren eskumenak hobeki gauzatzeko aldera eginiko laguntza-eskaerei erantzuteko laguntza-betebeharra, eskatzea, administrazio horiei legokieke, eta ez Nafarroako Parlamentuaren mendeko fiskalizazio-organo bati, ez baita administrazio publiko bat eta ez baitago arauaren mende, haren esparru subjektiboan sartuta ez dagoenez.

Barañainen, 2025eko apirilaren 25ean.

Alkatea

María Lecumberri Bonilla

### Zizur Nagusiko Udala

#### **KONTUEN GANBERARI**

Jon Gondán Cabrera jauna, Zizur Nagusiko Udaleko alkate udalburua, Kontuen Ganberaren aurrean agertzen da, eta zuzenbidean egokien den moduan, honako hau DIO:

Barañain, Lizarra eta Zizur Nagusiko udalen erakunde autonomoen 2023ko langileriaren, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen behin-behineko fiskalizazio-txostena onesten duen Kontuen Ganberaren lehendakariaren ebazpenari dagokionez 2025eko apirilaren 15ean udal honi eskainitako iritzi-emate ahalari heldurik, honako alegazio hau aurkezten dela horretarako emaniko epearen barruan:

1.- Txostenak atal bereizi bat izan behar du aztertutako erakunde autonomo bakoitzeko:

Fiskalizatutako erakunde autonomo bakoitza independentea da, eta udal desberdinetara atxikita daude; gainera, dituzten berezitasunak direla-eta, ez dira antzekoak.

Hori horrela, identifikatutako urritasunak ez dira komunak eta ezin zaizkie guztiei egotzi; beraz, eginiko gomendioak ere ezin zaizkie guztiei aplikatu. Txosten bateratua egin denez –ikus 5. eta 10. orrialdeak–, kontu horiek guztiak nahasten dira, eta entitate bakoitzaren egoeraren irudi irrealak ematen da.

Zizur Nagusian, 2025eko apirilaren 24an

ALKATEA

Sin.: Jon Gondán Cabrera

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMATEN DIEN ERANTZUNA**

Eskertzen ditugu Barañaingo eta Zizur Nagusiko udalek behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak.

Txostenean aplikazioa eman zaie Zizur Nagusiko udalak aurkeztutakoei, eta dagozkien paragrafoak aldatu dira behin betiko txostenean.

Barañaingo Udalak aurkeztutako alegazioei dagokienez, honako hau azaltzen dugu:

- “Honi buruzko ohartarazpena: dagokion hitzarmen arauemailean xedatzea dirulaguntzen onuradun diren elkarteek frogatu beharko dutela bete dutela koordinatzaile eta entrenatzaileek jasotako zenbatekoen gainean zerga-atxikipena egiteko betebeharra” oharrari buruz eginiko alegazioei dagokienez, esan behar da, gure txostenean adierazten den eran, ez dela “ohartarazpen” bat, dirulaguntzen kudeaketa hobetzeko gomendio bat baizik, eta ez dela ez-betetze gisa jaso. Inon ez da esaten legez ezarritako betebeharra denik, baina ez dago ezer, eragozten duenik betebeharrak gisa ezartzea diruz lagundutako entitateak aipatzen ditugun legezko atxikipenak egin izana justifikatu beharra. Dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan edo zuzeneko dirulaguntza baten hitzarmen arauemailean ezarri behar dira kasu bakoitzean aplikatzekoak diren baldintzak eta konpromisoak (horien artean, legez ezarritakoak). Beraz, aztertzen ari garen kasuan, ez dago eragozpenik zuzeneko emakida baten onuradunari frogatze-betebeharra ezarri ahal izateko diruz lagundutako koordinatzaile eta entrenatzaileek jasotako zenbatekoen gainean zerga-atxikipena egiteko betebeharra bete izanari buruz. Aitzitik, ganbera honen iritziz, horrela bermatzen da diruz lagundutako entitateak bete egiten dituela legeak. Eta, gainera, lotura zuzena dago betebeharraren horren eta emandako dirulaguntzaren xedearen eta helburuaren artean.

- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. eta 142. artikuluetan, hurrenez hurren, aurreikusitako administrazioen arteko harremanen printzipioei eta laguntza-betebeharrari buruzko oharrei dagokienez, esan behar da ez dutela loturarik kasu honekin, eta ez dutela inolako zerikusirik txostenean adierazitakoarekin. Honako hau ez da administrazio publikoen arteko lankidetzaren kasu bat, baizik eta toki-erakundearen kontuak eta kudeaketa ekonomikoa fiskalizatzeko eskumena duen organoaren auditoretzaren bat. Auditoretza hori auditoretza publikoko teknikei eta printzipioei jarraikiz egin dugu.